

5^a EDICIÓN | SECUNDARIA

CONCURSO ESCOLAR

HAZLO VERDE

MISIÓN #SALVEMOSLOSBOSES

CAMBIAR TU MUNDO ESTÁ EN TUS MANOS

UNIDAD DIDÁCTICA 2

**15. GJH
LEHORREKO BIZITZA**

AURKIBIDEA

1

15. GJH LEHORREKO BIZITZA.

1.1 BIODIBERTSITATEAREN GALERAREN ONDORIOAK.

1.2 GJH-EN HELBURUAK 2030 AGENDA BETETZEKO

2

GURE BASOAK ZAINTZEN DITUZTEN ORGANISMOAK

2.1 ZER DIRA BASO-POLITIKAK?

2.2 ESPAINIAKO BASO-POLITIKAK

3

BASO JASANGARRIAK

3.1 ZER DIRA BASO JASANGARRIAK?

3.2 KONTSUMITZAILEAREN PAPER ARDURATSUA

4

WEBGRAFIA



15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES



- Lehorreko ekositemak babestu, berrezarri eta berberen erabilera jasangarria egin.
- Basoen erabilera jasangarria egin.
- Basamortutzeari aurre egin.
- Lurraren degradazioa eta biodibertsitatearen galera geldiarazi eta lehengoratu.

Basoek gure planetaren azaleraren ia %31 estaltzen dute. Arnasten dugun airetik, edaten dugun ura eta jaten ditugun jakiak arte, basoak dira mantentzen gaituztenak. Horretan pentsatu beharra daukagu. 1.600 milioi pertsona ingururen biziraupena basoen menpe dago. Basoek lehorreko animalia, landare eta intsektu espezieen %80a baino gehiagori ematen diote ostatu.

Gaia testuinguruan koka ezazu gomendatzen dizkizugun bideo hauekin:

1.1 BIODIBERTSITATEAREN GALERAREN ONDORIOAK.

Gaur inoiz baino indar handiagoarekin inposatzen da giza-jarduerek ingurumen naturalaren gain duten efektuen eta baliabideen gehiegizko ustiapenean eta ingurugiroaren degradazioan dituzten ondorien inguruko, hala nola ingurune horietan aurkitzen diren animalia eta landare espezie ezberdinen oreka mantentzen duen bizigai hauskorren inguruko hausnarketa bat.

Aldaketa klimatikoak eta giza-jarduerek ekosistemen desoreka eta ondoriozko biodibertsitatearen galera eragiten amaitzen dute, aldi berean hondamendi naturalak eragiten dituenak.

Deforestazioak eta basoen degradazioak espezie guztien habitataren galera, ur gezaren murrizpena, luraren erosioaren areagotzea eta atmosferara isurtzen den karbonoaren igoera dakartzate.

Baliabide naturalen erabilera neurrigabeak, gehiegizko kutsadurak, ekonomia lineal baten ondorioek ekosistemen pixkanakako galera eragiten joan dira, eta basoen inguruko neurriak ez hartzeak geure planetaren zein komunitateen osasunari eragiten dio.



JARRADOKITUTAKO JARDUERA

Jarraian dibertsitatearen galeraren eta basoen pobretzearen ondorio nagusiak deskribatuko dizkizugu: neurrigabeko kutsatzaile eta pestizidek eragiten dituzten baso-soiltzea, lur idorra eta dibertsitatearen galera.

- Ondorengo bideoak proiektu itzazu gaia eta basoen galeraren ondorioak testuinguruan kokatzeko.
- Ikasgelan eztabaida piztu ezazue problematikaren inguruko jarrera eta ideiak konpartitzeko, zuen sentsibilizazio kanpainaren objektua definitu arte.
- Ateratako ondorioak arbelan idatzi sentsibilizazio kartelaren slogana sortzeko.

1. GAIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO BIDEOA: ARAZORA HURBILTZEN GARA.

2. BIDEOAK: ERAGILE ETA ONDORIOEN INGURUAN SAKONTZEN DUGU.

A. BASO-SOILTZEA

Zuhaitz osasuntsu bat lekuan-lekuko klimaren erregulatzailea, aberastasun biologiko handiko bizilekua da, eta biziraupenerako basoaren beharra duten izaki bizidun asko urez hornitzen ditu.

Baso-soiltzea, giza-jardueren mesedetan zuhaitzak eta basoko landareak moztearen ondorio gisa.

Zergatien artean nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lurzoruen eskurapena edo hiri eremuen areagotzea, eraiketa industrial eta komertziala, hala nola eraikuntzarako egurrezko produktuen eskaera eta paperezko produktuen zein altzarien fabrikazioa aurki daitezke.

Era berean, airearen eta uraren kutsadura, aldaketa klimatikoa eta azkenik garrantzia handikoa den biodibertsitatearen galera baso-soiltzea eragiten duten arazoak dira.



IKERTZEKO ESTEKAK:

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak publikoaren eskura egungo Espainiako Baso-politikaren datu, txosten eta egoera jartzen ditu:

Transizio ekologikorako Ministerioak webgune honetan Espainiako biodibertsitatearen inguruko estatistika guztiak ditu eskuragai.

Espainiako Estatistika Institutuak GJH bakoitzaren inguruko datuak eta helmugekiko harremana eskaintzen ditu.

B. LUR IDORRA

Zuhaitzen mozketa eta gero, baso soiltzeak berarekin lurraren kalitate txarra dakar. Lur idor eta basamortuek existitzen diren elikagaiak desagertaraztea eragiten dute, zuhaitzak eta landareria baitira lurzorua estali eta babesten dutenak.

Era berean, sustraien faltak lurraren higadura eragiten du, euriteek haien igarotean lokatz bilakatutako lurra ez ezik, berberari heldu liezaizkiokeen elikagai eta hazi guztiak arrastatzen baitituzte.



Baso soiltzeak eragindako lurraren degradazioak, gehiegizko abeltzaintza ustiapenak eta hondakin eta isurien kudeaketa okerrak, lur eremuen multzoan produktibitatea murrizten dute, eta aldaketa klimatikoaren ondoriozko tenperatura gero eta altuagoek dima erdi idorren hedapenaren areagotzea dakarte.

IKERTZEKO ESTEKAK

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak publikoaren eskura egungo Espainiako Baso-politikaren datu, txosten eta egoera jartzen ditu:

Transizio ekologikorako Ministerioak webgune honetan Espainiako biodibertsitatearen inguruko estatistika guztiak ditu eskuragai.

Espainiako Estatistika Institutuak GJH bakoitzaren inguruko datuak eta helmugekiko harremana eskaintzen ditu:

C. BIODIBERTSITATEAREN GALERA

Ongarri, pestizida eta plastikoen erabilerak eta abeltzaintzako zein ingurugiroko beste **hondakinen isurketak**, hala nola erregai fosilen erreketak biodibertsitatearen galera bultzatzen dute. Abeltzaintza, nekazaritza, industria eta hirietako jarduerak airearen, uraren eta lurraren kutsadura eragiten dute eta zuzenean eragiten diete ekosistemei.



Fuente de la imagen

Biodibertsitatearen galeraren eraginez animaliek haien inguruneko aldaketei egokitzea beste aukerarik ez dute. Prozesu honek animalien organismoak, hala nola espezie askoren elikadura katea larritasunez eraldatzen ditu.

IKERTZEKO ESTEKAK:

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak publikoaren eskura egungo Espainiako Baso-politikaren datu, txosten eta egoera jartzen ditu:

Espainiako Estatistika Institutuak GJH bakoitzaren inguruko datuak eta helmugekiko harremana eskaintzen ditu.

COVID-19a, INGURUGIROAREN ABISU BAT

Nazio Batuen Erakundeak, bere **“Munduko Abeltzaintza 2013: gaixotasun aldakorren ikusptegi bat” txostenean**, azken urteetan agertutako gaixotasunen %70-ak animalia eta gizakien artean produzitutako saltoaren eraginez, jatorri animaliak dituela azpimarratu du.

Zoonosi, bezala ezagutzen den prozesua da, zeinaren bidez animalien gaixotasun bat gizakira transmititzen den. Zientzialariek **ingurugiroaren degradazioa**, azpimarratzen dute, baliabideen ustiapen neurrigabea eta biodibertsitatearen galerarekin batera krisi honen bizkortzaile gisa, Covidaren aurretik, **azken mendean planetak pandemia ugariren arriskua ezagutu baitu, haien artean behi eroen gaitza, edota zerrien eta hegaztien gripeak**.

1.2 2030 AGENDA BETETZEKO 15. GJH-aren HELMUGAK

2015eko irailaren 25ean NBEren Batzorde Orokorrak pertsonen eta planetaren jasangarritasunaren aldeko **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda** izeneko akzio plana ezarri zuen.

Agendak 17 Helburu planteiatzen ditu izaera integratu eta banaezina duten 169 helmugarekin, esfera ekonomiko eta soziala, eta ingurugiroarena barne hartzen dituztenak.

EZAGUTU 15. GJH HURA ERDIESTEN LAGUNTZEKO.

15.1 2020 urterako, lehorreko eta barnekaldeko ur gezako ekosistemen, zehazki baso, hezegune, mendi eta zonalde idorrek eta berberak eskainten dituzten zerbitzuen kontserbazio, lehengoratzeko eta erabilera jasangarriaren alde lan egin, akordio internazionaletan ezarritako betebeharrekin bat etorriz.

15.2 2020 urterako, baso mota ororen kudeaketa jasangarria bultzatu, baso-soiltzeari amaiera eman, degradatutako basoak berreskuratu eta baso landaketa eta mundu mailako birlandaketa areagotu.

15.3 2030 urterako, baso-soiltzearen aurka borrokatu, degradatutako lurralde eta lurzoruak birgaitu, desertifikazioak, lehorteak eta uholdeak jotakoak barne, eta lurzoruaren degradazio neutroa duen mundu bat lortu.

15.4 2030 urterako, mendiko ekosistemen kontserbazioa zaindu, haien aniztasun biologikoa barne hartuz, garapen jasangarrirako oinarrizkoak diren onurak eskaintzeko duten ahalmena hobetzeko helburuarekin.

15.5 Habitat naturalen degradazioa murrizteko premiazkoak eta esanguratsuak diren neurriak hartu, aniztasun biologikoaren galera geldiarazi eta, 2020rako, mehatsupean aurkitzen diren espezieak babestu eta haien desagertzea ekiditu.

15.6 Baliabide genetikoaren erabileratik datozen onuren parte-hartze ekitatibo eta bidezkoa bultzatu eta baliabide haientzako sarbide egokia sustatu, maila internazionalen adostu den bezala.

15.7 Isileko ehizari eta babestutako flora eta fauna espezieen trafikoari amaiera emateko eta produktu basatien eskaera eta eskaintza ilegalean esku hartzeko premiazko neurriak hartu.

15.8 2020 urterako, espezie exotiko inbasoreen sarrera ekiditeko eta berberak lehorreko eta uretako ekosistemetan duten efektua esanguratsuki murrizteko eta espezie nagusiak kontrolatu edo errotik ezabatzeko neurriak hartu.

15.9 2020 urterako ekosistemen balioak eta aniztasun biologikoa planifikazio nazional eta lokalean, garapenerako prozesuetan, pobrezia murrizteko estrategietan eta kontabilitatean integratu.

15.a Iturri guztietatik datozen finantza-baliabideak modu esanguratsuan mobilizatu eta areagotu, aniztasun biologikoa eta ekosistemak kontserbatu eta jasangarritasunez erabiltzeko.

15.b Iturri orotatik eta maila orotan datozen baliabideen bolumen nabarmen bat mobilizatu basoen kudeaketa jasangarria finantzatu eta garapen bidean dauden herrialdeei aipatutako kudeaketa bultzatzeko pizgarri egokiak errazteko, batez ere kontserbazioari eta basoen birlandaketari begira.

15.c Ezkutuko ehizaren eta babestutako espezieen aurkako borrokari mundu mailan ematen zaion laguntza areagotu, batez ere lekuan lekuko komunitateek biziraupenerako dituzten aukera jasangarriak areagotuz

2 GEURE BASOAK BABESTEN DITUZTEN ORGANOAK

FAOren (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Btuen Erakundea) arabera basoak berberen jasangarritasuna bermatzen duten **baso-politika eta estrategien** bitartez babestu eta mantendu behar dira.

Zentzu honetan, **Nazio Batuak** oinarriak ezartzen ditu izaera nazionaleko baso-politikak markatutako estrategien ildotik joan daitezen.

Gainera FAOk gaur egun **Basoetarako 2017-30 Plan Estrategikoa dauka**, maila orotan munduko akziorako marko gisa balio duena, baso mota ororen eta basoetatik kanpo dagoen edozein zuhaitzen **kudeaketa jasangarrirako, eta baso-soiltzeari eta basoen degradazioari amaiera emateko**.

2.1 ZER DIRA BASO-POLITIKAK?

Baso-politiken helmuga **gizartearen onurarako basoetako baliabideen** eta zuhaitzen **erabilera jasangarria eta kontserbazioaren** inguruko erabakiak gidatu eta zehaztea da.

Zehazki, baso-politika batek:

- Epe luzera basoen babesa, mantenimendua eta beraien balioen hobekuntza bermatzen dituen ikuspegi bat ezartzen du, oraingo eta etorkizuneko generazioentzat.
- Agertzen ari diren klima aldaketa bezalako arazoen aurrean ekiteko eta ekonomia “berriro berdea egiteko” aukera berriei erantzuteko estrategia bat eskaintzen du.
- Erabiltzaile ezberdinen eskariak erlazionatzen eta baso-sektoreko agente guztien funtzioak, basoen kudeaketaren arduradunengandik basoetaz arduratzen den administrazio publikoa arte, definitzen laguntzen du.
- Instituzioei marko bat errazten die, non maila nazionalean aurrera eramaten diren lege eta araudiak jasotzen diren.

2.2 ESPAINIAKO BASO-POLITIKAK

Espainiak baditu orain dela urteak helburu nagusi herrialdeko **basoen masaren, lurzoruen egoeraren eta biodibertsitatearen** jarraipen bat egitea duten baso eta ingurugiro-politika ugari.

- **Baso-inbentario Nazionalea** Nekazaritza Ministerioaren menpe dago eta aldzika Espainiako basoen egoeraren inguruko informazioa ematen du, eta herrialdeko mendien ondasun ororen eboluzio eta produkzio gaitasunaren inguruko azterketaren bidez, jabetza eta babes erregimena, berberen egoera legala, baloratzen ditu.
- **Espainiako Natura-Ondarearen eta Biodibertsitatearen Inbentarioa** Ingurugiroaren Ministerioaren menpe dago. 2001 urtean Estatuetako Higadura-Mapak eguneratu ziren, maila autonomiko zein nazionalen, inbertsioen lehenespenerako baliodun informazioa edukitzeko helburuarekin. **“Lurzoruen Higadura-Inbentario Nazionalak”** lurzoruen egoera behatzen du, berberen txirotzea ekiditeko neurriak hartuz.

Baso-politika hauen helburu nagusiak estatu mailan alderagarria den informazio objektibo eta fidagarria izatea da ondorengoetarako:

Kontserbazio, kudeaketa eta erabilera jasangarrirako politikak egin.
Gizarteari Natura-Ondarearen eta Biodibertsitatearen balioak igorri.
Informazio iturri gisa jokatu konpromezu internazionalen
betekizunei erantzuteko.

Espainiako basoetako ekosistemek hogeitasei milioi hektarea baino hedapen zertxobait handiagoa estaltzen dute, zeinetatik ia hamabost milioik zuhaitzak dituzten eta hamabi inguruk ez, hurrenez hurren eremu nazionalaren %29a eta %23a suposatzen dutelarik.

Bestalde, **Espainia biodibertsitate gehien duen Europako herrialdea da**, 121 habitat mota ezberdin ditu barne, Europar Batasunean bizi diren animalia espezieen %50ari eta landare espezieen %80ari ematen baitie egoitza.

Gero eta gehiago, baso-politikak egiteaz arduratzen direnek basoek eta basoen kudeaketak beste sektore batzuetan duten efektua eta haiekiko duten menpekotasuna, eta alderantziz, hartu behar dute kontuan.

Baso-politika batek **parte interesdunen zein gizartearen helburu ekonomiko, sozial eta ingurumenezkoak oreka ditzakeen basoen kudeaketa jasangarri baterako** markoa eskain dezake.



3.1 ZER DIRA BASO JASANGARRIAK?

Baso bat **baso jasangarria** dela kontsideratzeko haren kudeaketak **jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenezko irizpide**kin ardaztua egon behar du. Kudeaketa hau kontsumitzaileak jarraitu beharreko erantzukizunarekin osatzen da.

- **Irizpide ekonomikoa:** Baso-ingurunearen kontserbaziorako interes ekonomiko bat izan behar da. Hura existitzen ez denean, biztanleriak zonaldea utzi eta degradatu egin daiteke.
- **Irizpide soziala:** Haren ustiapenak biztanleria landa eremuan tinkotzea ahalbidetzen du, ekosistema haien zaintzari mesede eginez.
- **Ingurumen-irizpidea:** Basoen kudeaketa jasangarri batek naturari leheneratu eta baliabideak mugarik gabe mantentzeko aukera ematen dio. Biodibertsitatea mantentzen eta berotegi-efektuko gasak murrizten laguntzen du, erregulazio hidrikoa gauzatu eta lurzorua babestu.

Egurrak oinarritzko rola jokatzen du jasangarritasuna eta erantzukizuna bete nahi baditugu. Lehengai honen **kudeaketa egokia** ezinbestekoa da **planeta osoko basoak eta biodibertsitatea mantentzeko**.

Horretarako, konpromezuaren barne dago **egurra** eta zelulosa bezalako produktuek, jatorri dituzten **basoen kudeaketa jasangarria bermatzen duten egiaztagiriak izatea**.

Eta harekin bete ahalizateko egurrezko produktuetarako **ECODES** en (Ekologia eta Garapenerako Fundazioa) egiaztapena, **FSC**, **PEFC** edo **Madera Justa** bezalako egiaztagiri ambientalak, hala nola europar mailako **Ecolabel** ziurtagiria edukitzea.

3.2 KONTSUMITZAILEAREN PAPER ARDURATSUA

Basoa jatorri duten produktuen (egurra, papera, kortxoa, onttoak, erretxinak, esentziak...) ziurtagiriek **kontsumitzaileek jasangarritasunez kudeatutako produktuak erosten ari dituztela ziurtatzen dute**. Erosleek baso mozketaren ilegalaren aurka borrokatzen eta basoetako baliabideen funtzio nagusiak bultzatzen lagun dezakete, haien artean:

Ekosistema ugariaren eta biodibertsitate biologikoaren
mantenimenduari mesede egin.

Landa eremuko herrien sostengu ekonomikoaren eta eraldaketarako industria
ezin garrantzitsuago baten jatorri izan.

Gero eta errekonozituagoa den paper sozial eta kulturala izan.

Kontsumitzaile zorrotz eta arduratsu bat, eskuratzen dituen ondasunen jasangarritasunarekiko interesa agertzen duena eta merkataritza jardueretan informazioa eta **ingurugiroarekiko konpromezu** bermeak exijitzen dituen da.

Maila ekonomikoan gero eta enpresa gehiagok jakinarazten ari dute haien **hornitzaileek** ingurugiroarekin duten konpromezua, kontratazio betekizunen bidez, **baso jasangarrietatik etor daitezen**.



IRADOKITUTAKO JARDUERA.

Jarraian **produktuak baso jasangarrietatik datozela egiaztatzen dituzten zigilu nagusiak** deskribatuko dizkizugu.

Taldeka araudi hauek zuen inguruko zein produktu edo enpresek betetzen dituzten iker ezazue.

1

Horretarako prozesu hauek zigiluen bitartez balioztatze arduratzen diren eintitate nazional, internacional eta europarren estekak errazten dizkizuegu.

2

Zuen inguruko zein sektoretan aplikatzen diren ikertu eta ikusi eta gero, ekin iezaiozue ikasgelan eztabaidari zuen sentsibilizazio kanpainaren objektua definitu arte.

3.3. EGIAZTAGIRIEN GARRANTZIA KONTSUMO ARDURATSUA BERMATZEKO

1. **PEFC** basoen jasangarritasunerako munduko elkarterik garrantzitsuena da. PEFC munduko baso-egiaztapen sistema inplantatuenada. PEFCen helburuamundukobasoakerantzukizunez kudeatuak izan daitezela, eta haien funtzio ugariak oraingo eta etorkizuneko generazioentzat babestuak egon daitezela da.



2. **ecodes.org**. Ekologia eta Garapenerako Fundazioa, Garapen Jasangarrirako Helburuak ekintza zehatzen bidez gauzatzean zentratzen da, jasangarritasunaren kontzeptua garapenaren ereduaren barne hartu eta kontzeptu honen garapena bultzatuko duten antolakuntza-inguru globalak sortzeko helburuarekin. Orduztik

Ecodesek aurrera egin du bere estrategia eta jarduera unean-uneko lehentasunetara egokituz, beti ere **gizarte jasangarriago bat bultzatuz eta maila lokaletik globalera ekinez.**

3. **FSC** irabazi asmorik gabeko **organizazio globala da, munduan basoen kudeaketa arduratsua bultzatzeko** lan egiten duena. **FSC-k** (Forest Stewardship Council®) **hiru egiaztagiri mota ezberdin** emititzen ditu: Baso-egiaztagiria, Babes Katea eta Kontrolatutako Egurra. Ziurtagiri desberdinak produkzio etapa ezberdinekin eta baso-produktua bere produkzio/distribuzio katean kokatzen den lekuarekin erlazionatzen dira.



4. **Madera Justa Fundación COPADE**ren parte da, World Fair Trade Organization (WFTO) **Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakunde**ko eskubide osoko kidea, 60 herrialdeetako 300 organizazio baino gehiagok osatutako mundu mailako sarea, organizazioak Bidezko Merkataritzarako egiaztatzen dituen. Ildo horretatik, egurraren sektorean espezializatu da, mundu mailan eta europan **Madera Justa** egiaztapenarekin altzariak eta etxerako bestelako



tresna eta osagarri apaingarriak komertzializatzen dituen organizazio gutxietakoa eta Espainian bakarra delarik. Produktu horiek Bidezko Merkataritzaren denominazioarekin eta berberaren irizpideak jarraituz produzituak izan dira, FSC® (Forest Stewardship Council®)-ek egiaztatzen duen bezala, modu egokian kudeatutako basoetako egurrarekin.

5. **Ecolabel**, Europan eta mundu osoan errekonozitua, **Europar Batasunaren etiketa ekologikoa da. Bikaintasun ambientaleko** etiketa bat da, bizi-zikloan zehar ingurugiroaren estandarrak betetzen dituzten produktu eta zerbitzuei ematen zaiena: Lehengaien ustiapenetik, produkzio, distribuzio eta ezabapenera arte. EBaren etiketa ekologikoak ekonomia zirkularra bultzatzen du, produktoreak fabrikazio prozesuan zehar hondakin eta CO2 gutxiago sortzera animatuz. Bere irizpideen artean hirugarrenen kontrolaren bidez ingurugiroaren gaineko inpaktuaren murrizketa eta ingurugiroaren aldeko akzioen eraginkortasuna bermatzea daude.





1. <https://www.un.org/es/sections/observances/why-do-we-mark-international-days/#:~:text=La%20celebraci%C3%B3n%20de%20los%20D%C3%ADas,desarrollo%20sostenible%20o%20la%20salud.>
2. <https://www.unenvironment.org/es/noticias-y-reportajes/reportajes/seis-datos-sobre-la-conexion-entre-la-naturaleza-y-el-coronavirus>
3. <https://www.un.org/es/observances/biological-diversity-day>
4. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/biodiversity/>
5. https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/wp-content/uploads/sites/3/2016/10/15_Spanish_Why_it_Matters.pdf
6. <https://ecosiglos.com/perdida-de-biodiversidad-causas-consecuencias-y-soluciones/#:~:text=Las%20consecuencias%20son%20cambios%20radicales,extremos%20como%20sequ%C3%ADas%20y%20tormentas.>
7. <https://www.20minutos.es/noticia/395110/0/suelo/erosion/fao/>
8. <https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/politica-forestal/inventario-cartografia/inventario-nacional-erosion-suelos/>
9. <https://www.pactomundial.org/2019/12/sector-privado-ante-el-ods15/post-ods-15/>
10. <http://www.cooperacionspanola.es/es/comunidad/cooperablog/ods-15-vida-en-la-tierra>
11. <https://www.epdata.es/datos/situacion-bosques-mundo-espana-datos-graficos/330>
12. <https://www.agenda2030.gob.es/>
13. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>
14. <https://reds-sdsn.es/que-hacemos/objetivos-de-desarrollo-sostenible>
15. <https://undocs.org/pdf?symbol=es/E/RES/2017/4#:~:text=en%20la%20Tierra.,El%20plan%20estrat%C3%A9gico%20de%20las%20Naciones%20Unidas%20para%20los%20bosques,la%20degradaci%C3%B3n%20de%20los%20bosques.>
16. <http://www.mercadosdemedioambiente.com/actualidad/plan-estrategico-para-los-bosques-2017-2030-de-la-onu-y-sus-6-objetivos-forestales-mundiales/>
17. <https://www.bosquessostenibles.com/>
18. <https://www.bosquessostenibles.com/blog/reforestacion-peninsula-iberica/>
19. <http://redbiodiversidad.es/>
20. <https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/conservacion-de-la-biodiversidad/>
21. <https://www.un.org/esa/forests/wp-content/uploads/2019/04/Global-Forest-Goals-booklet-Apr-2019.pdf>
22. <http://www.fao.org/3/MW547ES/mw547es.pdf>
23. <https://ec.europa.eu/environment/ecolabel/>
24. <https://maderajusta.org/>
25. <https://ecodes.org/>
26. <https://www.pefc.es/index.html>